KON-GRESUA

HAMAIKA BEGIRADA - ENLAZANDO MIRADAS

2020ko urriak 20, 21 eta 22

Setem

KON-GRESUA

Alternatibak krisiaren aurrean intersekzionalitatetik
Zer ageri da COVID-19aren krisiaren ondorioz? Publikotik eta kolektibotik abian.

Erakunde bizigarri eta bideragarriak
Bizitza erdigunean eta feminismoak erakunde-kultura berri baterako gida bezala.

Indarkeria kontsumitzen dugu?
Indarkeria matxistarik gabeko kontsumo eraldatzailea sortzeko gakoak.

Pribilegioak mahai gainean
Sexu eta genero aniztasuna eta dekolonialitatea eta antirazismoa kontsumo eredu alternatiborako ekonomia sozial eta feministaren ikuspegitik.

HAMAIKA BEGIRADA - ENLAZANDO MIRADAS Kon-gresuaren[1] bigarren edizioa modu birtualean egin zen. Hortaz, nahi genuenez aurrez aurre biltzeko aukera izan ez bagenuen ere, munduko toki ugarietako pertsonekin batzeko aukera eman zigun, eta beste era batera pertsona horiek ezingo lukete topaketaren parte izan.

Kongresuaz gain, esperientzien azoka sortu zen, espazio birtual[2] ireki bat ekonomia sozialaren eta solidarioaren, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen zein ekonomia feministaren ekimenak eta jardunbide egokiak ikusarazteko eta balioztatzeko. Espazio hori behin betiko irekita egongo da proposamen eta proiektu berritzaile berriak gehitzeko.

Uruguaitik, Argentinatik, Kolonbiatik, Ekuadorretik, El Salvadorretik, Mexikotik, Guatemalatik, Euskaditik, Amerikako Estatu Batuetatik, Italiatik, Espainiatik, Perutik eta Portugaletik konektatu ginen eta, horri esker, hiru eguneko ibilaldi hori hainbat herrialdeko eta testuinguruko esperientzia eta istorio ezberdin eta bakarrez beteta egon zen.

Partekatzeko, bata besteari entzuteko eta gertatzen zaiguna sentipentsatzeko[3] nahiak batu gintuen. Horrez gain, pandemiak biluztu duen krisi sozial, ekonomiko, sanitario eta politiko horri feminismoetatik nola aurre egin asmatu nahi genuen, gizabanakoen eta kolektiboaren eraginak zein egiturazko kontuak aztertuz. Distantziak, zoritxarrak eta gogoeta egiteko gelditzera behartzen gaituen egoera zail hori gorabehera, elkarrekin aurrera egiteko nahiak dei egin zigun.



1 Kon-gresua: «bildu eta elkarrekin urratsak egin» (hori da kon-gresuaren asmoa: `congredi´ –elkarrekin joan, bildu). Aditz latindar hori «con-» (elkarrekin) aurrizkiaz eta «gradi» (urratsak egin, ibili) aditz sinpleaz osatzen da.

2 https://hamaikabegirada-enlazandomiradas.org/eu/esperientzia-azola/

3 Adimenari heltzen dionaz haratago eraikitzean eta sentitzen dugunari tokia ematean datza, adierazten duguna gure gorputzean nola kokatzen den ikusiz.

Alternatibak krisiaren aurrean intersekzionalitatetik

Zer ageri da COVID-19aren krisiaren ondorioz? Publikotik eta kolektibotik abian.

Hasteko, zenbait esperientzia partekatu genuen, besteak beste, fisikoki elkartzea ezinezkoa denez, M8-an azken aldiz gertatu zenez aurrez aurre batu ezin garenez, **erresistentzia eta borroka kolektiboko modu berriak sortu direla.**

Horietako bat Argentinan gertatu zen, non «langileen asanblada pandemia-garaietan» egin zen formatu birtualean[4] . Modalitate horrek aukera ekarri zuen sortzen ari ziren zailtasun berriei aurre egiteko baliabideak erabakitzeko, konfinamenduaren ondorioak gehien jasaten ari zirenekin konektatzeko eta zenbait hiritan pandemia nola igarotzen ari ziren mapatzeko. Testuinguru berdinean beste esperientzia interesgarri batzuk gertatu ziren, adibidez, bidezko merkataritzako sareak bateratzea zaintza-sareekin.

COVID-19ak sortutako krisi sanitario globalaren ondorioz, ezinezkotzat jotako fenomeno imajinaezin bat bizi genuen: merkatua, geldiezintzat eta ukiezintzat jo genuena, gelditzea. Tradizionalki lan-esparru publiko eta pribatua bereiztean oinarritu den sistema kapitalista heteropatriarkalaren zutabeak zalantzan jarri zirela ikusi genuen, lan-esparru pribatua ahulduz. **Ez dago zalantzarik zaintza-lanak funtsezkoak izan direla eta badirela, dena gelditu zenean horiek ez baitziren gelditu; eta gure bizitzei heldu diete. Agerian geratu den errealitate horren esanahi handia geure gain hartzea proposatu genion geure buruari, beti jakin izan duguna inork ez dezala ukatu aurrerantzean.**

4 Asanbladari buruzko informazio gehiago hemen: https://latfem.org/que-vidas-importan-preguntas-feministas-y-acciones-colectivas-en-tiempos-de-violencias-en-pandemia/

Emakumeen zereginen gainkarga handitu zela egiaztatu genuen, etxeko langileek eta beste oinarrizko langile batzuek jasaten duten babesgabetasuna zorroztu dela ohartarazi genuen, eta genero-indarkeriaren handipen handia ere bai, beren erasotzaileekin giltzaperatuta egotera behartuta daude eta.

Hala ere, zenbait lorpen nabarmendu genituen, besteak beste, egoera gogor horren aurrean langileak mobilizatu zirela Espainian, eta **etxeko langileen lehen sindikatu nazionala**[5] sortu zutela.

Ohartzera eman genuenez, politika publikoek erantzukizun erabakigarria dute behar ditugun aldaketak zilegi egiterako, sendotzerako eta azkartzerako orduan, eta horien gain eragitea garrantzitsua dela bat egin genuen. **Ehun sozialak, ekonomikoak, komunitatekoak eta auzokideenak sendotzeko beharra** azpimarratu genuen, **bai eta ekonomia soziala eta solidarioaren esperientziak areagotzeko beharra ere, eredu kapitalista harrapakaria indartzen duten neurriak babesten dituzten estatuek sortzen duten arriskuari aurre egiteko baliabide gisa.**

Krisi-egoeretan bata besteari laguntzeko eta lankidetzako esperientziak ekarri genituen gogora, eta dinamika gatazkatsuak ere sortzen direla eta gatazka-elementu horrekin borrokatu behar dugula aitortu genuen.

Hizlarien irudiak (ezkerretik eskuinera eta goitik behera): **Flora Partenio**, Organización Red Dawn (Argentina), **Alicia Rius**, Instituto Mujeres y Cooperación (Madril) eta José Luis Fdez. Casadevante **'Kois'**, Foro de Transiciones (Madril).

5 Espainiako etxeko langileen lehen sindikatuari buruzko informazio gehiago hemen: https://www.elsaltodiario.com/trabajo-domestico/nace-el-primer-sindicato-de-trabajadoras-del-hogar

Erakunde bizigarri eta bideragarriak

Bizitza erdigunean eta feminismoak erakunde-kultura berri baterako gida bezala.

Ondoren, erakundeei eman genien arreta, feminismoei, elkarte-kultura berrirako gida gisa.

Gure erakunde propioak espiritu kritikoarekin aztertzeko garrantzia nabarmendu genuen, **benetako eraldaketa soziala eta ekonomikoa lortzeko.**

Hizlarien irudiak (ezkerretik eskuinera eta goitik behera): **Nora Silvia Leis**, aurkezlea, SETEM Hego Haizea (Euskadi), **Lorena Fernández**, SETEM Hego Haizea (Euskadi), **Paula Ortiz**, Germinando (Madril) eta **Gloria Patricia Uribe**, Mujeres que Crean (Kolonbia).

SETEMeko kideek generoaren aldeko erakunde-aldaketaren prozesua, burutzen ari direna, azaldu zuten. Haren bitartez, diskurtsoaren eta jardunbideen arteko koherentzia bilatzen ari dira, erakundearen barruan eta kanpo ikuspegi feminista kritikoa gehitzeko motibazioak mugituta. **Hauek hartu genituen prozesuaren funtsezko parte gisa:**

>Sistema heteropatriarkala ez erreproduzitzea

>Bizitza erdigunean jartzea

>Kontuan hartzea dibertsitatea eta intersekzionalitatea

Komunikazioa hobetzearen ideia sendotu genuen, eraginkorragoa ez ezik, **afektiboagoa eginez, eta emozioak txertatzeko baliabideak bermatu genituen. Horrela, gure sentimendu, iritzi eta proposamen guztiak adierazteko aukera izango dugu errespetuz eta aniztasunez.**



Maite Mentxakak (EMEME Proiektuak) egindako akta grafikoa, "Sentipentsatzen" espazioan hitz egindakoan oinarrituta: "nola bizi ditugu gaur egungo larrialdiak eta haiek azalarazten dutena?"

Paula Ortizen laguntza jaso genuen Germinando kooperatibatik. Hark aurkeztu zuen «Guía de análisis de prácticas de corresponsabilidad en economías social y solidaria» (Ekonomia sozialean eta solidarioan erantzunkidetasun-jardunbideak aztertzeko gida)[6] , Mares Madrid proiektuak editatuta, jardunbide horien xedea eta irismena hobeto ulertzen laguntzeko ez ezik, benetan eraldatzaileak diren ebaluatzeko xedez; hau da, hautemandako arazo baterako konponbidea baino ez diren edo benetan estrategikoak diren.

Hortik abiatuta, gure erakundeetan aurre egin nahi diegun desberdintasunak sendotuko dituzten jardunbideak egitearen arriskuari buruzko hausnarketa egin genuen, eta horrek agerian utzi zuen erakundeetan barnera begiratzeko garrantzia.

Kolonbiatik, Patricia Uribek aurkeztu zuen Mujeres que Crean (Sortzen duten emakumek) erakundean «Genero-ikastetxeetatik»[7] abiatuta bizitakoa. Erakunde hori Medellinen sortu zen indarkeria sozial eta politiko handiko garai batean, eta «bizitzarako proposamenak eragin ditu heriotzako testuinguruan». Hala, gogorarazi zigunez, **alaitasuna politika eraldatzeko tresna izan daiteke minaren, sufrimenduaren eta beldurraren aurrean.**

Kongresuaren 2. ardatza oinarri hartuta –«Erakunde bizigarriak eta bideragarriak»–, hitz egindakoari buruz sortu ziren hitz nagusietan oinarrituta eginiko irudia.

6:https://maresmadrid.es/wp-content/uploads/2018/04/Gui%CC%81a-de-ana%CC%81lisis-de-pra%CC%81cticas-de-corresponsabilidad-en-la-economi%CC%81a-social-y-solidaria.pdf
7:https://www.mujeresquecrean.org/index.php/novedades/770-escuela-violeta-para-la-construccion-de-paz-y-equidad-desde-la-ninez

Indarkeria kontsumitzen dugu?

Indarkeria matxistarik gabeko kontsumo eraldatzailea sortzeko gakoak.

Jardunaldiaren bigarren egunean **indarkeria matxistak eta kontsumoak zer lotura duten** pentsatu eta eztabaidatu genuen. **Ulertu genuenez, kontsumo-eredu kapitalistak eragiten dituen indarkeria matxistak, erabat natural bihurtu ditugunak, identifikatu eta ikusarazi behar dira, indarkeriarik gabeko ekimen berriak sortzeko. Horretarako, ezinbestekoa da mahaiaren gainean jartzea sistema horrek erabiltzen dituen baliabide eta tresna guztiak, sistema hori nola suntsitu eta ekonomia soziala eta solidarioa nola eragin aztertzeko.**

Hori lortzeko, honako arlo hauetan zer gertatzen den aztertu genuen: elikadura, estetika, mugikortasuna, fikziozko serieak, telefonia mugikorra eta etxeetako kontsumo energetikoa.

Hainbat gauzaz aritu ginen hizketan, besteak beste, gizonek eta emakumeok elikagai eta produktu ezberdinak hautatzen ditugula, estereotipoen eta genero-rolen arabera.

Emakumeen kasuan, nabarmentzekoa da produktu jakin batzuk kontsumitzen dituztela **argaltasuna eskatzen digun edertasun-eredu nagusia betetzeko**. Ados egon ginen gailentzen diren edertasun-kanonak zuriak, heterosexualak eta argalak direla.

Ondorioztatu genuenez, sistema kapitalistak indarkeria matxistak sustatu eta betikotzen ditu kontsumoaren bitartez, emakumeen eta beste gorputz zein sentimen ez heteroaurauzko batzuk kontrolatzeko, horrek sistemaren biziraupena eta hazkuntza ziurtatzen duelako.

Hala, argi geratu da kontsumoak indarkeria erreproduzitu eta elikatzen duela, eta zaila dela hura azpimarratzea hura hausteko, dinamika toxikoa normalizatu baitugu.

Horren aurrean, indarkeriarik gabeko kontsumorako aukera dakarten alternatibak pentsatu ditugu. Gizabanakoei dagokigunez, nork bere burua zaintzeari garrantzia eman zitzaion, **gure gorputzak maitatzeari, beren aniztasuna aldarrikatzeari**, estereotipoak desegiteari, eta guretzako izateari, ez berriz, besteentzako.

Taldeari dagokionez, nork bere burua zaintzeko eta ahalduntzeko talde-jardunak hartzeko, beste gorputzak ikusarazteko, garrantzia nabarmendu genuen. Adierazi genuenez, **matxismoaren begietan ikusezina den hori ikusgarri egin** behar dugu.

Elkarrizketan aritu ginen jarduteari eta eusteari buruz, feminismoetatik kultura ezberdin bat sortzeko.

Egiturari dagokionez, indarkeriarik gabeko kontsumoa ahalbidetzen duten politika publikoak izateko beharra nabarmendu genuen, eta horiek izan ezean, eskatu behar ditugula azpimarratu genuen, bai eta egiturazko indarkeriak salatu ere, jokoaren arauei eragiteko eta aldatzeko.

Horren ondoren, espazio bat sortu genuen **gaur egungo larrialdiak eta horietatik sortzen dena nola bizitzen ari garen partekatzeko,** eta emozio, sentimendu eta egonezin ezberdinak landu genituen. Parte-hartze anitza egon zen eta balio handikoak izan ziren. Horri esker, intimitatez, afektuz eta enpatiaz osatutako giroa sortu zen.

Klimaren krisiak sortzen digun kezkari buruz aritu ginen, natura suntsitzeaz eta gure bizitzetan duen eraginaz. Horren harira, ikuspegi antropozentrikoa alde batera utzi behar dugula azpimarratu genuen, bizitzen ari garen hondamena ekarri digulako, eta ikuspegi hori aldatzen ez badugu, planetarik gabe utziko digulako. Guatemalatik, kide batek mayen mundu-ikuskera azaldu zuen, eta hori hartzeko proposatu zigun. Horrela, bata bestearen zein naturaren beharra dugula ulertuko dugu.

Ziurgabetasuna eta tristura sentitzen ditugu langabezia eta gosea handitzen ari direlako eta pobrezia eta emakumeen aurkako indarkeriak gero eta latzagoak direlako. Latitude ezberdinetan desberdintasunak nola bizitzen diren entzun genuen. Aurkako errealitate horien aurrean, pertsona batzuek aipatu zuten errudun sentitzen direla beren pribilegioengatik.

Beste kide bat, Kolonbiatik, bizitza defendatzen dutenak lagundu beharra dagoela aipatu zuen, eta bere herrialdeko egoera azaldu zuen: komunitateetako buruzagiak erailtzen ari dira han.

Gertatzen ari diren esperientzia inspiratzaileen irakaskuntza, **bakarrik ez gaudela jakitearen poztasuna, taldean eusteak dakarren itxaropena** jaso genituen. Krisi horretan aukera ikusi genuen ikasteko, gertatzen ari zaigunari beste zentzu bat emateko. Ezbeharraren aurrean samurtasuna gorde behar dugula nabarmendu genuen, eta ziurgabetasuna abiapuntu gisa hartzea proposatu genuen.

Pribilegioak mahai gainean

Sexu eta genero aniztasuna eta dekolonialitatea eta antirazismoa kontsumo eredu alternatiborako ekonomia sozial eta feministaren ikuspegitik.

Kongresuaren azken jardunaldian, pribilegioak jarri genituen mahai gainean. Horretarako, begiradak aztertu genituen sexu- eta genero-aniztasunen ikuskeretatik eta antiarrazakeriatik eta dekolonialitatetik kontsumo-eredu alternatibo baterako eta Ekonomia Sozial eta Feministarako. **Hasteko, hauxe galdetu genuen: nola zeharkatzen gaituzte kultura-patroiek sexu-aniztasunean pentsatzerako, sentitzerako eta bizitzerako orduan?**

Galdera horri erantzuteko, sexu-genero sistemaren kontzeptuari heldu behar izan genion, eta ulertu genuen sexualitatearen antolamendu hegemoniko eta binarista dela, gizarteak eraikitakoa. Testuinguru horretan, Lurdes Orellanak, «Desmontando a la Pili»-ko kideak, analogia bat egin zuen kultura antolatzeko sistema horren eta birus baten artean, eta adierazi zuenez, birus patriarkal horrek aliantza bat eta harreman sinbiotiko bat du beste birus batekin: kapitalismoarekin. Birus biek zeharkatzen gaituzte eta gure bizitzak eta sexualitateak eraikitzeko modua oztopatzen dute eta, era berean, sexismoari, heterosexismoari eta androzentrismoari eusten diete.

Analisi horri jarraikiz, esan genuenez, horiei aurka egiteko oso sistema immunitario boteretsua dugu gure alde. **Defentsa-sistema hori da, hain zuzen ere, feminismoa.**

Hizlarien irudiak (ezkerretik eskuinera eta goitik behera): **Kimy/Leticia Rojas**, Colectivo Ayllu – Migrantes Transgresorxs (Madril), **Lurdes Orellana**, Desmontando a la Pili (Aragoi) eta **Angelina Aspuac**, AFEDES (Guatemala).

Hala ere, generoak ez ditu zeharkatzen gaituzten zapalkuntza guztiak sortzen, eta, horregatik, antiarrazakeriaz eta dekolonialitateaz hitz egin genuen.

AFEDESko Angelina Aspuacek eta Colectivo Ayllu- Migrantes Transgresorxs kolektiboko Kimy/Leticia Rojasek **hausnarketa egin zuten zauri kolonialari buruz, oraindik dirauen min horri buruz. Ikusi genuenez, kolonialismoa ez da iraganeko kontua, bizirik dago, eta eragina du gorputzengan, eta, zehazki, emakumeen gorputzengan, pertsonen bizitzarengan eta herrien subiranotasunarengan.**

Indarkeria epistemikoa, historia indarkeriaz inposatzea eta mendebaldeko kontakizuna salatu ziren.

Neokolonizazio-prozesuen aurka agertu ginen. Politika estraktibisten bitartez gauzatzen dira horiek, lurrak eta mineralak kenduz, eta gorputz migratuen gaineko kontrol-politiken bidez. Kide batek zehatz-mehatz berba egin zuen Colectivo Ayllu kolektiboa egiten ari denaz, Espainiako Estatuak gorputz migratzaileen eta gorputz arrazatuen inguruan ezartzen dituen migrazio-politikei dagokienez. Atzerritarrei buruzko legea, barneratzeko zentroak eta deportazio expressak aipatu zituen, «beste» komunitateak, espainol zuriak ez direnak, legez kanpo uzteko eta gizartetik baztertzeko beste neurri batzuen artean.

Beste erresistentzia-esperientzia batzuk partekatu ziren ere bai artearen bitartez, ez soilik salaketa gisa, baizik eta kontakizun propioak, ez inposatuak, sortzeko tresna gisa.

Kide batzuek nabarmendu zuten garrantzitsua dela jakitea «nondik gatozen, zein den gure historia, lurrean gure tokia eta borroka aurkitzeko».

Beste toki batetik, hauxe adierazi zen: «Oso argi dugu eta beren pribilegioak zalantzan jartzen ez dituzten gizonak kritikatzen ditugu, baina guk, emakume zuriok, zer egiten dugu? Zalantzan jartzen al ditugu emakume zuri europar garen heinean ditugun pribilegioak?».

Hitz egindakotik abiatuta, geure buruari galdetu genion: nola eraldatu ahal dugu beste pertsonekin harremanak izateko modua aurreiritzirik edo botere-harremanik sortu gabe? Ondorioztatu genuen garrantzitsua dela **gure pribilegioak aitortzea, geroago horiek lantzeko.**

Belén Díazek (Madril) interpretatu zuen «Toma de Tierra» esku-hartze artistikoaren irudiak.

Egun biziak eta beharrezkoak izan ziren. Baliabide birtualen oztopoak hausteko gai izan ginen eta ematen dizkigun aukerak baliatzeko ere bai. Hala, bata bestetik gertu sentitu ginen, hunkitu ginen eta poztasunak, zauriak eta ilusioak partekatu genituen.

Truke horri esker ulertu genuenez, normalizatzen ditugun gauza guztiak, pertsonentzako eta naturarentzako bidegabeak eta indarkeriazkoak direnak, hautsi behar ditugu. Horretarako, harremanak sortu behar ditugu, eta sistema kapitalista heteropatriarkal, kolonialista eta arrazistari aurka egin behar diogu, gure gorputzak eta bizitzak markatzen ditu eta.
Beroa eman genion elkarri, hamaika begirada batu eta distantziak txikitu genituen.

Egiaztatu genuenez, gure ahots guztiak, anitzak, entzutea da historia idazteko modurik onena eta onartu nahi ez dugun ereduak mantentzen dituen bidegabekeriei eta desberdintasunei aurre egiteko tresnak sortzeko ere bai. Bide horretan, feminismoa gure egiten dugu, eta gure jardunbideak berrikusteko galderak egingo dizkiogu gure buruari, gure burua eraldatuko dugu eraldatzeko.

Kide batek esan zuen moduan, sutetxoak gara, Kongresu honetan berpizten direnak, eta **sugar kolektiboa sortu eta indarrak handitzen dituztenak.** Espero dugu espazio horren parte izateak, partekatu izanak eta entzun izanak itxaropenez eta nahi dugun mundua eraikitzeko grinez bete gaitzala, **betiere bizitza erdigunean jarrita.**

ESKERRIK ASKO !!



www.setem.org/euskadi
https://hamaikabegirada-enlazandomiradas.org/